

HIZTEGIA

Hiztegiaren erabilera onerako klase-hasieran ikasleei banatzea eta, hitzak banan-banan hartuta, haien esanahiari buruz mintzatzea proposatzen da.

Gida didaktikoaren barruan aurkituko duzuen hiztegi teknikoak bai bideoan teoria agertzerakoan, bai inguru profesionalean erabiltzen diren oinarritzko hitzez osatua dago.

LIBURUAK

Proposatzen diren liburuek zerikusi estua daukate kameraren eta argien munduko gaiekin eta ikasgaiekin, bai alderdi artistikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko, bai alderdi teknikoak jorratu nahi duenak erabiltzeko.

Errealizazioa deitu dugun atalean agertzen diren liburuak sakonagoak dira, eta gaien gehiago sakondu nahi duten ikasle eta irakasleei zuzenduak daude.

BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA

3. KAPITULUA

MUGIMENDUA IRUDIAN

Sarrerako hitzak

Ikus-entzunezko honetan, irudiak moldez grabatzeko jakingarriak sakontzen jarraituko dugu. Besteak beste, plano motak bereizten eta mugitzen ari diren nahiz geldirik dauden pertsonak grabatzeko bideo-kamera nola erabili ikasiko dugu. Lantegia atalean, bideo-kamera zehaztasunez erabiltzen lagunduko diguten hainbat ariketa ikusi eta praktikatu dugu.

Atalak

- Aurkezpena
- Plano motak
- Zuzendariaren erabakia
- Konposizioa eta koadroa
- Zer altueratan kokatu behar da bideo-kamera?
- Zooma eta *travellinga*

-LANTEGIA ATALA: fokatze eta enkoadratze ariketak -II-

ZUZENDARIAREN ERABAKIA

Bideo-kamera non kokatu da zuzendari batek hartu behar duen erabakirik garrantzitsuen. Hori horrela da, ikusleak zer ikusiko duen eta nola ikusiko duen erabakitzen ari garelako; hau da, kontakizunaren narrazioari dagokion ikuspuntutik egokiena erabakitzen ari garelako.

Plano orokorrak

Plano orokor handiak eta plano orokorrak sartuko ditugu plano orokorren multzoan. Plano orokor handiak, batez ere, toki baten handitasuna erakusteko erabili ohi dira. Eskalatzailer batek egin duen ibilbide arriskutsu ikusgarria erakusteko ere erabiltzen dira plano orokor handiak; baita basamortuan galduta dagoen pertsona bat erakusteko ere. Eta abar.

Tarteko planoak

Tarteko planoen multzoan plano amerikarrak, gerriko planoak eta bularrekoak sartuko ditugu. Tarteko planoei esker, ikusleok, hala antzezleen interpretazioa garbi-garbi, nola ekintza gertatzen ari den lekua, ikusi ahal izango dugu. Elkarrizketak erakusteko erabiltzen diren ohiko planoak dira.

Lehen planoak

Lehen planoen multzoan sartuko ditugu lehen planoak eta detaileko planoak. Plano mota horiek zinegintzaren aurkikuntza direla esan ohi da; izan ere, zinegintzaren agerpena arte ez zen ikusi aurpegi bat hain gertu. Berau dugu, dramatikotasunaren aldetik, planorik indartsuena. Horregatik ez da komeni edonola erabiltzea.

Taldeko planoak

Ekintza batean parte hartzen duten pertsonaiak eta objektuak enkoadratzen dituen planoari deritza taldeko planoak. Era horretako planoetan pertsonaiak hainbat modutan koka daitezke koadro barruan; batzuk plano orokorrean, beste batzuk tarteko planoetan, eta abar.

Badaezpadako planoak

Ekintzaren detaile bat, begira dagoen pertsonaia baten begirada edota horrelako une bat jasotzen duen eta muntaian jarraipen akats bat zuzentzeko erabili ohi den planoari deritza badaezpadako planoak.

Beste izen batzuk

Planoak, adierazten duten ikuspuntuaren arabera ere defini daitezke. Batzuk *plano objektiboak* dira. Ikuspuntu egokiena eskaintzen dute. Pertsonaiek leiho batetik ikusten duten paisaia, esate baterako. Beste batzuk *plano subjektiboak* dira. Pertsonaia baten ikuspuntua adierazten dute. Era horretako planoak ikuslea ekintzan integratzeko erabiltzen dira.

Bideo-kameraren angeluaren arabera ere sailka daitezke planoak. Plano horiek definitzeko, pertsonaiaren begien altuera hartuko dugu erreferentziatzat. Horrela, plano batzuk *goitik beherako planoak* izango dira; hau da, bideo-kamera pertsonaiaren begiak baino altuago kokatuz hartutakoak.

Ikuslearen ikuspuntutik, goitik beherako planoek koadroan agertzen diren pertsonaiekiko gupida-sentimenduak iradoki ditzakete. Dekoratu garrantzizko xehetasunak erakusteko goitik beherako planoak erabiltzean aukera berriak izango ditugu.

Beste batzuk *behetik gorako planoak* dira. Era horretako planoak lortzeko bideo-kamera koadroko pertsonaien begiak baino baxuago kokatuko dugu. Pertsonaiak garaiago agertuko zaizkigu eta haien kontrakoak baino indar psikologiko handiagoz.

Plano inklinatua. Plano inklinatua hartzeko bideo-kamera ezkerrean zein eskuinera inklinatuz lortzen da. Honela grabatutako planoek eromena zein ezegonkortasuna adierazten dute.

LANTEGIA. Fokatze- eta enkoadratze- ariketak -II-

Ikus-entzunezko arrunt baten grabazioan, oro har, pertsona bakar batek egin ohi ditu bideo-kamerak eskatzen dituen lan guztiak. Baina harraldia teknikoki zailak direnean, laguntzaile bat hartu ohi du: kamera-laguntzailea. Kamera-laguntzailearen lana izaten da harraldia fokatzea.

Gaurko lantegia atalean, kamera-operadoreak eta haren laguntzaileak egiteko diren fokatze-ariketak eta kamera-mugimenduak praktikatuko ditugu. Has gaitezen.

1. Hitz egiten ari diren bi pertsona, kanpoko kontrakanpoan, plano finkoan hartzeko moduan kokatuko dugu bideo-kamera.

Egoera dramatikoa honako hau izan daiteke: aurrez aurre ikusten dugun pertsonaia, hitz egiten ari dena, fokaturik edukiko dugu. Bukatzen du jarduna.

Beste pertsonaiak buelta ematen du bideo-kamerari begiratzeko, nahiko haserre. Haren aurpegia fokatuko dugu. Hitz egiten du.

Bestearen erantzunak irauten duen bitartean fokua dagoen gunean edukiko dugu. Bukatzen du jarduna.

Atzean gelditu den pertsonaia fokatuko dugu, orain. Hark erantzun egiten dio.

2. Bideo-kamera mapa baten aurrean kokatuko dugu, zoom bat egiteko, hiri baten izena eta neurriak erakusteko. Mapa ohol baten gainean itsatsita dago. Oholari pertsonaia batek eusten dio. Zooma bukatzean, bideo-kamerak gorantz egiten du oholari eusten dion pertsonaiaren aurpegia, behar bezala fokaturik, erakutsi arte.

3. Sigi-saga dabilen pertsonaia bati, -esaterako, ikasgela bateko mahaien artean dabilen irakasle bati- alboko *travelling* baten bidez jarraitzeko beharko ditugun elementu guztiak prestatuko ditugu. Pertsonaiak ibilbidea bukatzean, zoom bat egingo dugu aurrerantz pertsonaiaren bularreko plano batez bukatzeko.

HIZTEGIA

Plano orokor handia (POH): koadroan pertsonaiak oso-osorik eta dauden ingurunearen zati bat hartzen duen plano. Egoeraren eta tokiaren informazio orokorra ematen du.

Plano orokorra (PO): koadroan pertsonaiak bakarrik buruez gain eta oinetakoez behera oso espazio txikia hartzen duen plano.

Plano amerikarra (PA): pertsonaien belaunpetik gorakoa koadratzen duena. Ipar Amerikako abeltzainen filmetan gehien erabiltzen zen plano delako deitzen zaio plano amerikarra. Plano amerikarrak behizainen pistolak erakusteko asmatu zen.

Gerriko plano (GP): pertsonaien gerritik gorakoa koadratzen duen plano. Plano hauetan gorputza da interesgunea.


Bularreko plano: pertsonaien bularretik gorakoa koadratzen duen plano.

Lehen plano (LP): pertsonaien aurpegia edo objektu bat hartzen duen plano. Dramatikotasun handia du.

Detailleko plano (DP): pantaila osoa beteko duen detaile bat erakusten duen plano. Objektu baten alderdi bat izan daiteke, edo, pertsonaiaren begi bat, orban bat, eraztuna... Lehen planoak baino dramatikotasun handiagoa du eta istorioak eskatzen duenean baino ez da erabili behar.

Travelling: izen bereko ibilgailu baten gainean jarritako bideo-kamerak ibilgailua mugitzen ari dela hartutako irudiari deitu ohi zaio.

Zooma: foku aldakorreko objektibo bati eragin bitartean hartutako irudiari esaten zaio. Zooma egiteko izen bereko objektiboa behar da izan.



LIBURUAK

Bideo-kamera eta argiztatzeko tresneria

MILERSON, Gerald: *Cómo utilizar la cámara de video*, Gedisa, Bartzelona, 1998

SWUAISON, G eta LYVER, Des: *La iluminación en video, Principios básicos*. Gedisa, Bartzelona, 1997

MILERSON, Gerald: *Iluminación para televisión y cine*, IORTV, Madril, 1996

ARONOVICH, R.: *Exponer una historia. La fotografía cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Errealizazioa

CHESHIRE, David: *Manual de cinematografía*, Blume, Madril, 1981

FELDMAN, Simon: *La composición de la imagen en movimiento*, Gedisa, Bartzelona, 1995

FELDMAN, Simon: *La realización cinematográfica*, Gedisa, Bartzelona, 1997

Internet

www.imagendv.com

www.quesabesde.com

SERIEA OSATZEN DUTEN KAPITULUAK

- 1.- GRABATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA**
- 2.- BIDEO KAMERAREN OBJEKTIBOA**
 - 3.- MUGIMENDUA IRUDIAN**
 - 4.- ARGIA**
- 5.- ARGIZTATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA**
- 6.- ARGIZTATZEKO TRESNA ETA OSAGARRIAK**
- 7.- ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK**
- 8.- NOLA ARGIZTATU KANPOALDEAN**
- 9.- ARGIZTATZEKO TEKNIKA BEREZIAK**
- 10.- PRODUKZIOA ETA ENTSEGUAK**
 - 11.- GRABATZEN**

ekoizlea:

iadi

LG.- VI-32 / 06

Banatzailea:



Getaria, 18-behea, 01010-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608
artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

Ikasmaterial honek
Hezkuntza,
Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena
du.

2006/03/06